

BIDARRAIKO BERRIAK



Sar Hitz

Edito

Dans ce numéro :

Obrak Commission de travaux	2 à 7
Ingurumena Environnement	8 à 10
Herriko bizia La vie de Bidarray	11 à 15
Herriko elkarteak Les associations de Bidarray	16 à 20

Bidarraitar maiteak

Obraren arduraduna Herriko Etxea ez bazen ere –baizik eta Departamendua–, Olhako Zubiaren arranjatzeak markatuko du 2020 eta 2026 urteen arteko gure kargualdia. Azkenean, aspaldiko xedea gauzatu da. Gutarik gehienek emozio handiz ikusi dugu 349. departamenduko errepideko zubiaren suntsitzea eta berreraikitzea. 2020ko azaro arte zutik egon zen zubia *bow-string* motakoa zen (hau da, arkuzko sokazko zubi bat), eta egunean bana beste 580 ibilgailu pasatzeko ahala ematen zuen.

Zubi berria 1913-1914 urteetan eraiki zimenduetan oinarritzen da, jakinez segurki garai hartan ez zela ikerketa bulegorik eta anitzez ekipamendu gutiago bazela. Joan den maiatzaren 21ean, atsegin handiarekin bizi izan genuen zubi berriaren irekitzea. Zubi hau zabalagoa eta segurragoa da. Metalezko jostura eta betoizko taula ditu.

1,15 milioi euro balio izan du eta Departamenduak du osoki finantzatu. Lehenik eskertu nahi ditut hautetsiak eta Departamenduko teknikariak naski, obra hau eginik eta finantzaturik. Gero, LAPORTE enpresako langile taldea eskertu nahi dut, lanak ederki koordinaturik eta bidarraitarrekin ontsa akomeaturik.

Azkenik, partikulariki eta suharki eskertu nahi ditut bidarraitar guziak, zenbait hilabetez pazientzia handienarekin onartu baitzenituzten obrek eragin trabak.

Orain, guzian eginahalei eta borondate onari esker, zubi berri honek gure eguneroko bizia erraztu eta goxatuko du. Bururatzeko, Departamenduarekin elkarlanean ari gara ere, zubiaren inguruen edertzeko eta segurtasuna hobetzeko.

Milesker eta sartze on.

Jean Michel Anchordoquy.

Chers Bidarraitar

Même si la maîtrise d'ouvrage n'était pas portée par la commune mais par le Département, notre mandat municipal 2020-2026 sera bien sûr marqué par la réfection du pont Olhako Zubia en projet déjà depuis plusieurs années. C'est avec beaucoup d'émotions que l'on a, pour beaucoup d'entre nous, suivi la démolition et reconstruction de ce pont sur la départementale 349. L'ouvrage en place jusqu'en novembre 2020 était de type bow-string (c'est à dire un pont à corde d'arc) et permettait le passage d'une moyenne de 580 véhicules par jour.

Le nouvel ouvrage s'appuie donc sur des fondations existantes construites dans les années 1913-1914 et sûrement à l'époque sans bureau d'étude et avec beaucoup moins d'équipements.

C'est avec grand plaisir et satisfaction que le 21 Mai dernier, nous avons assisté à l'ouverture du nouveau pont, plus large, plus sécurisé et avec une structure métallique et tablier en béton construits pour un montant de 1,15 million d'euros entièrement financé par le Département.

Je remercie bien sur les élus et les techniciens du Département pour la réalisation et le financement de cet ouvrage. Je remercie également l'équipe de l'entreprise LAPORTE pour la bonne coordination des travaux et la bonne entente avec les Bidarraitar.

Mais je remercie plus particulièrement et très chaleureusement tous les Bidarraitar qui ont accepté avec patience le dérangement occasionné durant les mois de travaux.

Aujourd'hui grâce à l'effort et à la bonne volonté de tous, la réalisation de cet ouvrage facilitera et sécurisera notre vie quotidienne. Nous travaillons maintenant en collaboration avec le Département pour l'embellissement et

la sécurisation des abords du pont.

Merci et bonne rentrée.

Jean Michel Anchordoquy.



Commune de Bidarray
Bidarraiko Herria

Adresse / Helbidea
Mairie / **Herriko etxea**
64780 - BIDARRAI

☎ 05 59 37 71 51

Messagerie :
mairie.bidarray@wanadoo.fr

Heures d'ouverture de la mairie :
Herriko Etxearen idekitzeak

Mardi / Asteartea
Mercredi / Asteazkena
Jeudi / Osteguna
Vendredi / Ostirala
08 : 00 ⇨ 12 : 00
13 : 30 ⇨ 17 : 30
eta
Samedi / Larunbata
09 : 00 ⇨ 12 : 00

**Fermeture au public
le mercredi matin**

BIDEETAKO OBRAK**TRAVAUX DE VOIRIE****Eginak diren obrak**

Departamenduko ingeniariaren parte gisa, eta, bereziki, bide geruzen berritzeko programazioaren barnean, Bidarraiko herriak urteko 74 300 €-ren gaineko % 40ko dirulaguntza errezibitzen du, 61 km luze diren herriko bideen arranjatzeko. 2021eko urtarrileko herri aldizkarian iragarri bezala, 400 metro lineal mundrunatu ziren Loiheta etxera buruz, bai eta Adarre eta Basaburuko auzoetako bidegurutzak eta bide bazterrak ere.

Lan horiek Frédéric Marisco enpresak egin zituen.

Primaderan, ibiltariendako aparkalekua antolatu zen Ganarin, aparkatzeko leku gehiago izan daitezten.

Eginen diren obrak:

Laster, Mendiburiako pistaren betoiztatzeko lanak egitea pentsatzen da, 950 metro linealeko luzeran, Mendiburia etxea errepideari lotzeko.

Lan horiek Jean-Pierre Bidondo enpresak egingen ditu.

Editorialean erran bezala, bideak edertzeko eta seguragoak izateko lanak egingen dira Olhako zubiaren eta Noblia zubiaren artean, Departamenduarekin kudeakidetzan.

Izan ere, 1,40 m-ko zabalera izanen duen oinbidea sortuko da (beherean laranja ikus daiteke), jendeek segurtasun osoz ibiltzeko ahala izan dezaten.

Gainera, Enedis eta France Telecom sareak lurperatuko dira eta kutsadura eta xahupen gutiagoko karrika-argiak ezarriko dira.

Gure Gostura etxearen eta Zubiburiaren arteko herriko bidean eta Aire Zabal aterpetxearen eta Jantsa etxearen arteko bide zatian, mundruna arranjatzeko lanak egingen dira.

Herriko eraikinak:

Primaderan, Mendibil enpresak Apezania eraikina (apeztegi zaharra) berriz tindatu zuen, eta Urrizaga enpresak kanpoko leiho batzuk aldatu zituen.

Postetxearen gainean, lehen Postak baliatzen zuen apartamentua osoki berritu zuten nagusiki herriko langileek. Apartamentua 2021eko otsailetik arrandan emana da.

Travaux réalisés

Dans le cadre de l'ingénierie départementale et plus particulièrement dans le domaine de la programmation de renouvellement des couches de chaussées, la Commune de Bidarray obtient une aide financière de 40% sur un montant de 74 300€ par an pour l'entretien de 61 km de voirie communale.

Comme annoncé sur le bulletin de Janvier 2021, 400 mètres linéaire d'enrobé ont été réalisés vers la maison Loiheta ainsi que les zones de croisement et des raccords d'enrobés sur les quartiers Adarre et Basaburu.

Ces travaux ont été réalisés par l'Ets Frédéric Marisco.

Un parking randonneurs a été aménagé ce printemps à Ganari afin d'étendre les possibilités de stationnement.

Travaux à venir:

Des travaux de bétonnage de la piste de Mendiburia sont prévus dans les jours qui viennent sur une longueur de 950 mètres linéaires afin de désenclaver la maison Mendiburia.

Ces travaux seront réalisés par l'Ets Jean Pierre Bidondo.

Comme évoqué dans l'édito des travaux d'embellissement et de sécurisation de voirie sont prévus en cogestion avec le Département entre le pont Olhako Zubia et le pont Noblia.

En effet, un trottoir d'1,40m de large (en orange ci-dessous) sera réalisé afin de permettre aux personnes de marcher en toute sécurité.

Ces embellissements et sécurisation seront confortés par l'enfouissement des réseaux Enedis et France Telecom et l'installation de nouveaux lampadaires plus économiques et moins polluants.

Des travaux de réfection d'enrobé sont prévus sur la route communale entre la maison Gure Gostura et Zubiburia ainsi que sur la portion de route entre le croisement du gîte Aire Zabal et la maison Jantsa.

Bâtiments communaux:

Ce printemps, le bâtiment Apezania (l'ancien presbytère) a été repeint par l'Ets Mendibil ainsi que certains bandeaux et volets changés par l'Ets Urrizaga.

Au dessus de la Poste, l'appartement autrefois utilisé en logement de fonction par la Poste a été entièrement rénové en grande partie par les agents communaux. Il est loué depuis février 2021.



BIDEETAKO OBRAK


TRAVAUX DE VOIRIE

Zubien zerrendatzea:

Herriei laguntzeko xedearekin, Departamenduak ikerketa tekniko egin zuen herriko obren mantentzeari buruz, eta, partikularki, autoen zirkulazioari ireki zubiei buruz.

Ingeniari eskola bateko ikastun batek egin ikerlan horri esker, Bidarraiko herriko zubi guztiak zerrendatu ziren, andeatzeen zerrenda bat egin zen ere zubiaren begi diagnostiko batekin, lanen egiteko urgentziaren sailkapena eta lanen zenbatekoaren estimatzea.

Lan hori interesgarria da herriarendako, eta zubi horiek zerrendatu eta lanak lehentasunen arabera sailkatzeko parada emanen digu.



Recensement des ponts:

Dans le cadre de l'accompagnement aux communes, le Département a réalisé une étude technique dans le domaine de l'entretien des ouvrages communaux et notamment sur les ponts ouverts à la circulation automobile.

Ce travail réalisé par un stagiaire d'une école d'ingénieur a permis, pour Bidarray, de répertorier tous les ouvrages, de faire un relevé des dégradations avec un diagnostic visuel de l'ouvrage, une classification de l'urgence à réaliser les travaux et un estimatif des travaux.

Pezoi-asken mantentze lanak:

Herriko langileak belar pikatze eta sasi garbitzeko lanak egiten ari dira Bidarraiko kartierretan.

Larrazkenean, arroilak garbituko dira.

Oroitazten dizuegu lur pribatuen jabeen ardura dela bideen bazterreko adarrak eta zuhaitzak xedarratzea, sare elektriko eta telefonikoen babesteko.

Herriko bide bazterretan sasi garbitzeko makinaren pasatzea errazteko, jabeei galdatzen diegu enborrak eta egurra ez luzaz uztea.

Denbora gehiegi bide bazterrean egonen diren edo zirkulazioa edo sasi garbitzeko makina trabatuko duten egurrak berreskuratuko dituzte herriko langileek.

Ce travail, intéressant pour la commune, nous permettra de classer et de prioriser les travaux sur ces ouvrages.

Entretien des fossés:

Les travaux d'épaveuse réalisés par les agents communaux sont en cours dans les différents quartiers de la commune.

Cet automne, un nettoyage des rigoles sera assuré.

Nous rappelons qu'il est de la responsabilité des propriétaires des terrains privés de prendre en charge l'élagage des branches et des arbres en bord de route afin de préserver les différents réseaux électriques et téléphoniques.

Afin de faciliter le passage de l'épaveuse en bordure de route communale, nous demandons aux propriétaires de ne pas laisser trainer trop longtemps des troncs et bois en bord de route.

Les bois qui traînent trop longtemps et qui gênent la circulation et/ou le passage de l'épaveuse seront saisis par les agents de la commune et stockés sur un terrain communal.

SUTEEN KONTRAKO ZAINITZA

DEFENSE INCENDIE

Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren Suteen Aurkako Babes Zerbitzuarekin, gaur egun existitzen denaren mapa eta herrian suteen aurkako babesari buruz lehentasunak zehazteko mapa sortu dira.

Edateko uraren sareen diametroak eta herriko topografia kontuan harturik, kasik ezinezkoa izanen da suteen aurkako zutoin gehiagoren instalatzea.

Ondorioz, gure lana, oraindik, lurrak atzematea izanen da, kartierretan ur-reserbak optimizatzeke. Lehentasunak zehaztu beharko ditugu, hala nola jendea errezibitzen duten eraikinak eta, bereziki, lo egiteko lekuak dituztenak, baina baita jende anitzeko bizilekuak ere; bigarren urratsean, etxaldeak ere, lehentasuna emanez kabalen hazkuntzari.

Avec le service de Défense-Incendie de l'APGL une carte de l'existant a été établie ainsi qu'une carte permettant de prioriser la Défense-Incendie sur la commune.

Compte tenu des diamètres des réseaux d'eau potable et de la topographie de la commune, la mise en place de poteaux-incendie supplémentaires sera quasiment impossible.


Notre travail sera donc, à ce jour, de localiser des terrains afin d'optimiser des réserves d'eau sur les différents quartiers en ciblant les priorités, les ERP (établissements recevant du public) et notamment ceux avec des locaux à sommeil, mais également l'habitat dense et dans un second temps, les exploitations agricoles, en priorisant les élevages d'animaux.



LOTIZAMENDU OLHABERRIA LOTISSEMENT OLHABERRIA

Salmenta konponbideak izenpetu dute erosle guziak. Olhaberria lotizamendua ABF eremuan kokatua da.

Gaur egun, eraikitzekeo permissa horiek tratatuak dira:



Tous les acquéreurs ont signés le compromis de vente.

Le lotissement est situé sur le périmètre des bâtiments de France (ABF).

A ce jour, les dossiers de Permis de Construire suivants ont été déposés et sont en cours d'instruction:

- * Aña Marisco et Martin Ternisien.
- * Sophie Braz et Thierry Auché.
- * Clément Nadal.
- * Peio Azcona et Arantxa Camino.
- * Vanessa Vanmeulebroucke et Niklaus Maurer.

Heldu diren hilabetetan hasiko dira lehen eraikuntzak.

Bidarraiko herriak karrika-argiak antolatuko ditu Olhaberria lotizamenduan.



- * Aña Marisco et Martin Ternisien.
- * Sophie Braz et Thierry Auché.
- * Clément Nadal.
- * Peio Azcona et Arantxa Camino.
- * Vanessa Vanmeulebroucke et Niklaus Maurer.

Les premières constructions vont débuter prochainement.

La commune va procéder à l'installation de l'éclairage public sur le lotissement Olhaberria.

BIZILEKU PARTEKATUREN PROIEKTUA

Milesker hogeit bat bidarritarrei, adineko jendeendako bizileku elkartuen proiektuari buruzko inkestari ihardetsirik. Zuen oharrei esker, hobeki konprenitu ahal izan dira proiektu honen bururatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak eta beharrak.

Habitat Sud Atlantic (HSA) bizitegi sozialak arrandan emateko erakundeari baldintzen bilduma hau eman diogu, egingarritasun ikerketa bat proposa diezagun.

- Sei apartamentu (4 T3 eta 2 T2), balkoiarekin gainean.
- Denen gela bat eta oihal ikuztegi bat.
- Baratze partekatua.
- Aktibitateen egiteko eta jendeei zerbitzu egiteko eraikin atxiki bat.

Orain, lekuen itxurak eta planoak aztertzen ari gara HSAren laguntzarekin, Olhaberria batzordean.

PROJET D'HABITAT REGROUPE

Nous remercions la vingtaine de villageois qui a répondu à l'enquête concernant le projet d'habitat regroupé à destination des séniors.

Les retours favorables ont permis de mieux cerner les besoins et les critères à prendre en compte pour finaliser ce projet.

Nous avons confié au bailleur social Habitat Sud Atlantic (HSA) le cahier des charges suivant afin qu'il nous propose une étude de faisabilité.

- Six appartements (4-T3 et 2-T2) avec balcon à l'étage.
- Une salle commune et un coin buanderie.
- Un jardin potager partagé.
- Un bâtiment annexe pour les activités et les services à la personne.

Plusieurs configurations et plans sont actuellement étudiés avec l'aide d'HSA en commission Olhaberria.

LOTIZAMENDU OLHABERRIA LOTISSEMENT OLHABERRIA

Elkarri datxizkion etxeak

Bidarraiko herriak Hidalgo Perez arkitekto andereari galdegin dio zenbait planoren egitea, proiektu hau hobeki irudikatu ahal izateko.

Olhaberria etxe multzoaren parte honek 265 m²-tik 269 m²-ra arteko 4 etxe leku ditu, elkarri datxizkion etxeen egiteko, zeinak bizitegi nagusi izan beharko baitute, erosleak jabegora heltzeko. Elkarri datxizkion lau etxe hauek baratze pribatua dute, bat iparraldean, sartze aldean, eta bestea hegoaldean, kukuatua. Etxe bakoitzak bere sartzea du.

Lehen bi etxeak elkarri datxizkion murru batek bereizten ditu. Lau zati dituen teilatu batek babesten ditu. Itxura horrek kartierreko etxe zahar handiak oroitarazten ditu.

Lehen etxea T3 motakoa da. 86 m²-ko azalera du, egongela handi bat eta 2 ganbera gainean. Autoen aterpe bat du, zeinak sartzeko atea ere babesten baitu.

Bigarren etxea T4 motakoa da. 123 m²-ko azalera du, egongela handi bat eta 3 ganbera gainean.

Autoen aterpe bat eta garaje bat ditu, zeina baratzeari eta sukaldeari lotua baita. Sartzea harrizko lorio baten pean da.

Lehen bi etxe hauek ondoko bi etxeei lotuak dira, karrikako aldean den auto aterpe bikoitzaren bidez.

Hirugarren etxea eta laugarrena elkarri datxizkion murru batek bereizten ditu. Teilatuak hiru zati ditu eta ekialdean aitzindegi-gaina du, zeinaren luzeran balkoi bat baitago.

Hirugarren etxea T4 motakoa da. 123 m²-ko azalera du, egongela handi bat eta 3 ganbera gainean. Autoen aterpe bat eta garaje bat ditu. Sartzeko atea eta garajeak bigarren etxearen antolamendu berberak dituzte.

Laugarren etxea T5 motakoa da. 116 m²-ko azalera du, egongela handi bat eta 4 ganbera gainean. Autoen aterpe bat du. Sartzea lorio baten pean da, ekialdean.

Lau etxeak leiho-ateei esker hegoaldeko baratzeari irekiak dira. Estaian, hegoaldera edo ekialdera buruz diren ganberak loggia edo balkoia badute.

Lurraren erosteko eta etxearen eraikitzeko proiektu honetan interesa baduzu, edo argibide gehiago nahi baduzu, jar zaituzte harremanetan Herriko Etxearekin, 2021eko irailaren 30a aitzin.



Zone Nord

Maisons mitoyennes

La commune de Bidarray a demandé à Madame Hidalgo Perez (architecte) d'élaborer des plans pour mieux visualiser ce projet.

Cette partie du lotissement Olhaberria comprend 4 lots de 265m² à 269m² destinée à recevoir des maisons groupées (mitoyennes) pour une accession à la propriété à vocation de résidence principale.


Ces 4 maisons groupées ont chacune leur jardin privatif, un au Nord, côté entrée, un autre au sud, plus abrité des regards. Chaque maison possède sa propre entrée.

Les 2 premières maisons sont séparées par un mur mitoyen. Elles sont abritées par la même toiture à 4 pans. Ce volume rappelle les grandes maisons anciennes du quartier.

La 1^o maison est de type 3 pour 86 m² de surface de plancher : un grand séjour et 2 chambres à l'étage. Elle possède un abri voiture, qui protège également la porte d'entrée.

La 2^o maison est de type 4 pour 123 m² de surface de plan-

cher : un grand séjour et 3 chambres à l'étage. Elle possède un abri voiture et un garage sur jardin et cuisine. Son entrée est située sous un porche en pierre.



Zone Sud

Ce premier ensemble est relié aux 2 maisons suivantes par un double abri voitures côté rue.

La 3^o maison est séparée de la 4^o par un mur mitoyen. Leur toiture a 3 pans et un pignon côté Est le long duquel court un balcon à l'étage.

La 3^o maison est de type 4 pour 123 m² de surface de plancher : un grand séjour et 3 chambres à l'étage. Elle possède un abri voiture et un garage. Sa porte d'entrée comme son garage présente les mêmes dispositions que la maison 2.

La 4^o maison est de type 5 pour 116 m² de surface de plancher : un grand séjour et 4 chambres à l'étage. Elle possède un abri voiture. Son entrée est située sous un porche, côté Est.

Les 4 maisons sont largement ouvertes par des portes fenêtres sur leur jardin, côté Sud. A l'étage les chambres orientées Sud ou Est s'ouvrent sur loggia ou balcon.

Si vous êtes intéressé par ce projet d'achat de terrain et de construction, ou pour tout renseignement complémentaire merci de vous rapprocher de la mairie avant le 30 Septembre 2021.

ONDDOENEA

Onddoenea eraikina berritzea da hurrengo urteetarako Biddarraiko herri etxeko proiektu enblematikoetako bat. Pirinio Atlantikoetako departamenduko FENICS proiektuan egindako lanaren ondoriozko gomendioak kontuan hartuta, proiektu hunen inguruan muntatu den Herri Batzordeak, 2020. urtearen amaieran, "Landa-ingurunekeo esperimentazioa eta berrikuntza" Interes Adierazpenerako Dei bati erantzun zion, lokal horiek erabiltzeko proiektua eraikitzeko. Txosten hori onartu ondoren, animazio-talde bat antolatu zen zen herri-batzordearen inguruan: ADEIKO enpresa (Ximun CARRERE), HEMEN elkarte (Francis Carricart), Gogaide enpresa (Hélène Charriton).

2021. urtearen hasieran, talde hori herritarrekin harremanetan egon zen, zenbait bilkura partehartzaileraren bidez, eraikinararen erabileraren hipotesiak berresteko, programazio-azterketa batentzat elementuak ekartzeko. Azterketa lan horrek proiektu arkitekturela finkatuko du eta berritzearen kostua hobeki definitzen lagunduko du. Eraikinararen inguruko alderdi teknikoei dagokienez (infiltrazioak, egitura-azterketak...), Euskal Elgargoak laguntzen du herriko etxea, azterketa lan horientzat dirulaguntza ekarri.

Herritarrekin egin diren bilkurak aberatsak izan ziren irakaskuntzan. Lehenengo bi bilera generalista egin ziren, eta lokal moten beharren zerrenda egin zuten; ondoren, 5 bilera tematiko egin ziren pista horiek fintzeko (laborariak eta etxeko ekoizpenak, enpresak, aisialdi aktibitateak, enpresak, merkatariak, ostatu, jatetxeak, landetxeak, herriko elkarteak).

Eraikina bera erabiltzeaz gain, argi dago proiektu honek aukera emango duela herriko bizitzari buruzko gai zabalagoen inguruan lan egiteko (praktika kolektibo berriak, biztanleen arteko elkarrezagutza, pedagogia, informazioa, tokiko produktuak, mendiaren baliatze partekatua...).

Bilkuren ondoriozko elementuak biltzen duen dokumentua prestatzen ari da eta parte hartu zuten pertsoneri helarazia izanen zaie.

Sartzean, animazio berriak egongo dira. Aurreko bilkuretan parte hartu ezin izan duen edozein pertsona ongi etorria da, noski. Nahikoa da Herriko Etxeari bere burua ezagutaraztea zerrendetan sartzeko



ADEIKO

HEMEN ELKARTEA

Gogaide

La rénovation du bâtiment Onddoenea est un des projets phare de la municipalité pour les années à venir. En tenant compte des préconisations issues du travail réalisé pendant le projet FENICS du département des Pyrénées Atlantiques, la commission municipale a répondu en fin d'année 2020 à un Appel à Manifestation d'Intérêt (AMI) « Expérimentation et Innovation en milieu rural » pour construire le projet d'utilisation de ces locaux.

Suite à l'acceptation de ce dossier, une équipe d'animation s'est constituée autour de la commission municipale avec La société ADEIKO (Ximun CARRERE), l'association HEMEN (Francis Carricart) la société Gogaide (Hélène Charriton).

En ce début d'année 2021, cette équipe a été au contact des villageois au travers d'une série de réunions participatives pour confirmer les hypothèses d'utilisation du bâtiment qui permettront d'avancer sur une étude de programmation. Cette étude fixera le projet architectural et permettra d'appréhender de façon plus précise le coût de la rénovation.

En ce qui concerne les aspects techniques autour du bâtiment (infiltrations, études structure...) la commune se fait accompagner par la Communauté d'Agglomération du Pays Basque qui cofinance ces études.

Les réunions avec les villageois ont été riches en enseignement. 2 premières réunions généralistes ont eu lieu qui ont esquissé une liste de besoins en types de locaux, puis 5 réunions thématiques ont permis d'affiner ces pistes (Agriculteurs et producteurs fermiers, Entreprises, Bases de Loisirs, Commerçants, hébergeurs, restaurateurs, Associations du village)

Au-delà de l'utilisation même du bâtiment, il apparaît clairement que ce projet permettra de travailler autour de thématiques plus larges concernant la vie du village (Nouvelles pratiques collectives, interconnaissance entre habitants, pédagogie, information, produits locaux, partage de la montagne...)

Un document reprenant les éléments issus des réunions est en cours d'élaboration et sera communiqué aux personnes ayant participé. De nouvelles animations auront lieu à la rentrée autour de ce projet. Toute personne intéressée pour suivre ces réflexions et qui n'a pas pu participer aux réunions précédentes est évidemment bienvenue. Il suffit de se faire connaître à la mairie.

Onddoenea 4.0

AFP HIRU MENDI

Artzaintza guneak hobeki kudeatzeko, Artzamendi mendiguneko bazkalekuen -zehazki, Itsasuko herrian eta Bidarraiko AFPren bazkalekuetan- herriarteko araudia plantan ezarri zen aurtengo neguan. Kabalak bortuetara igortzeko bost eremu zehaztu dira. Kabalak sektoreka identifikatuko dira, eta, beraz, kudeatzaileek finantzatu koloretako lepokoak eta medailoiak ezarriko zaizkie.

Artzamendi:

Herriarteko batzordearen osatzea:

- HIRU MENDI AFP-ko 2 kide, AFP-ren eremuen kudeatzaile gisa.
 - Itsasuko Herriko Etxeko bi hautetsi, Itsasuko artzaintzako eremuen kudeatzaile gisa.
 - Bortura igaiten diren bi kabala hazle, kudeatzaile bakoitzeko.
 - Artzamendi Mondarrain SIVU-ko ordezkari bat, gunearen Natura 2000 programa plantan ezartzeko.
- Araudia Herriko Etxean irakur daiteke, jakinik lehen aldiz indarrean sartu eta gero, 3 urte guzietz alda daitekeela.

Iparla:

Buruzuneko goi-ordokian eta tarteko eremuetan artzaintzaren hobeki antolatzeko, BATTITT URRIZA enpresak AFP HIRU MENDI osoki finantzatu zuen zerradura bat egin zuen.

Gune horretarako aholku batzorde bat sortu da, zeinak Iparla mendigunea baliatzen duten kabala hazle guziki, herriko kontseiluko bi ordezkari eta AFP HIRU MENDI elkartearen bi ordezkari biltzen baititu.

Mendiko laborantzaren eta artzaintzaren dinamika onaren atxikitzeko, bertze erabiltzaileak sentsibilizatzeke mendian ibiltzeko ohidura egokiei, eta leku eta ibilbideetan jende gehiegi ibiltzen dela ikusirik, Departamenduko Erakargarritasun eta Garapen Turistikorako Agentziak eta Euskal Elkargoak ibilaldien hastapenean zinpeko pertsonak hartuko dituzte. Esperimentazio lan hori jende anitz ibiltzen den lekuetan egiten da, hala nola Bidarrain.

Jakin behar da ere herriak gogoeta egiten duela Baztanen egonen den pertsona baten enplegatzeari buruz, erabiltzaileak hezteko eta sentsibilizatzeke gune natural babestu eta pribatu horretan ibiltzeko molde egokiei buruz. Herriko Etxean zenbait erabaki hartu ondoan, seinale bereziki ezartzeari buruz lan egiten ari gara ere.

Afin de mieux gérer les espaces pastoraux, un règlement intercommunal des estives du massif de l'Artzamendi a été mis en place cet hiver sur le territoire des communes d'Itxassou et le périmètre des estives de l'AFP de Bidarray.

Cinq zones de transhumance ont été définies afin d'identifier les animaux par secteur avec colliers et médailles de couleurs différentes financés par les gestionnaires.

Artzamendi:

Composition de la commission intercommunale:

- 2 membres de l'AFP HIRU MENDI en leur qualité de gestionnaires des espaces de l'AFP.
- 2 conseillers municipaux de la Commune d'Itxassou en leur qualité de gestionnaire des espaces pastoraux communaux.
- 2 éleveurs transhumants par gestionnaire.
- 1 délégué du SIVU Artzamendi Mondarrain pour la mise en place du programme Natura 2000 du site.

Le règlement détaillé est consultable en mairie sachant qu'il peut être révisé tous les 3 ans à compter de sa première mise en application.

Sur l'Iparla:

Afin d'organiser une meilleure gestion pastorale du plateau de Buruzune et des zones intermédiaires, une clôture, entièrement financée par l'AFP HIRU MENDI, a été réalisée par l'ETS BATTITT URRIZA.

Sur ce site, création d'une commission consultative comprenant tous les éleveurs déclarants sur le massif Iparla ainsi que deux représentants du conseil municipal et deux représentants de l'AFP HIRU MENDI.

Afin de préserver une agriculture de montagne et une bonne dynamique pastorale, et pour sensibiliser les autres usagers aux bonnes pratiques adoptées en montagne, et au vue de la surfréquentation des sites et itinéraires, l'agence d'attractivité et de développement touristique du Département et la Communauté d'Agglomération vont missionner des personnes assermentées au départ des randonnées. Ce travail d'expérimentation se déroulera sur divers sites très fréquentés dont Bidarray.



NATURA 2000**Natura 2000: Errobiren arroko ondare naturala zaindu**

Errobik eta bere erreka-adarrek biodibertsitate ohargarria dute. Horren ondorioz "Natura 2000 gune" gisa izendatuak dira. Natura 2000 Europako naturagune sare bat da, biodibertsitatearen zaintza eta aktibitate sozioekonomikoak bateratzea helburu duena.

Mendiko iturrietarik Errobi Aturrirekin juntzatzen den lekuraino, interes komunitarioko (= Europa mailan arraroak edo azkarki mehatxatuak diren) 18 espezie eta 19 habitata natural mota aurkitu dira: arrain migratzaileak (izokina, lanproia...), ekrebisak, erreka bazterretako lizardiak... Leku batzuetan erronka ekologikoak bereziki azkarrak dira: Bidarrain adibidez, Baztan errekan, arras arraroak diren Pirinioetako muturluzea edo Soldanella villosa landarea aurki daitezke.

Errobiko Natura 2000 guneraren helburuak finkatzen dituen dokumentua (DOCOB) 2012 apailatu da. Gidaritza Batzordean (COFIL) bildutako tokiko eragileen arteko lanaren emaitza da: hautetsiak, laborarien ordezkariak, arraintza elkarteak... DOCOB-aren animazioa herri elkargoaren gain da. Dokumentu horrek ondare naturalaren zaintzaren erronkak finkatzen ditu, eta horiei erantzuteko plantan ezarri behar den ekintza programa.

Ekintza horiek plantan ezartzeko, kontratupeko eta borondatezko tresna batzuetan proposatuak zaizkie eragile eta jabeei. Adibidez, Laborantza Politika Bateratuaren (PAC) baitan, laborariak laborantza-ingurumen (MAEC) neurriak izenpetzen ahal dituzte. MAEC-ek biodibertsitatea eta uren kalitatea zaintzen dituzten praktiken sustatzea dute xede, diru laguntzen truke (erreka bazterretako zuhaitzen kudeaketa, fitosanitariorik ez erabiltzea...). 2012-tik, 110 bat etxalde MAEC-etan engaiatu dira Errobiko Natura 2000 gunean.

Beste proiektu mota batzuetan eramanak dira ere: adibidez fauna inbentarioak, edo bisoi amerikarra espezie inbaditzailearen kontrako ekintzak, nafartarrekin elkarlanean. Natura 2000 guneko abere eta landareen ezagutarazteko liburuxka bat argitaratu da aurren, herri elkargoaren webgunea telekargatzen ahal da.

Natura 2000 edo proposatuak diren tresnei buzuko argibide gehiagoren ukaitzeko, Herri elkargoarekin harremanetan sartzera gomitatzen zaituztegu : 05 59 48 30 85 / m.cherbero@communaute-paysbasque.fr

Natura 2000 : préserver le patrimoine naturel du bassin de la Nive

La Nive et ses affluents abritent une biodiversité remarquable, qui a justifié l'intégration du cours d'eau au réseau européen « Natura 2000 ». La démarche Natura 2000 vise à concilier conservation de la biodiversité et activités socio-économiques.


Des sources de montagne à la confluence avec l'Adour, pas moins de 18 espèces et 19 habitats naturels classés d'intérêt communautaire (= rares ou fortement menacés en Europe) ont été répertoriés : poissons migrateurs, écrevisse à pattes blanches, forêts alluviales... Certains secteurs présentent des enjeux de biodiversité particulièrement importants : notamment le Baztan à Bidarraï, qui abrite des espèces très rares telles que la Soldanelle velue ou le Desman des Pyrénées.

Le Document d'Objectifs (DOCOB) de la Nive a été élaboré en 2012. Les acteurs locaux concernés, membres du Comité de Pilotage, ont collaboré pour élaborer ce document : élus, organismes agricoles, pêcheurs... L'animation du DOCOB est portée par la Communauté d'Agglomération Pays Basque. Ce document identifie les enjeux de conservation du patrimoine naturel et un programme d'actions à mettre en œuvre pour y répondre.

Des outils contractuels sont proposés aux acteurs et propriétaires volontaires pour mettre en place les actions du DOCOB. Par exemple, les agriculteurs peuvent souscrire des mesures Agro-Environnementales (MAEC) dans le cadre de la PAC, il s'agit de compensations financières pour des pratiques favorables à la biodiversité et la qualité des eaux : gestion extensive des prairies, entretien de la végétation des berges... Depuis 2012, environ 110 exploitations ont souscrit des MAEC sur la Nive.

D'autres actions sont conduites dans le cadre de Natura 2000 : un programme de piégeage du Vison d'Amérique (espèce invasive) est par exemple engagé depuis 2018 sur la Nive amont, en partenariat avec la Navarre. Un livret de présentation des espèces a aussi été publié début 2021, il est téléchargeable sur le site de la CAPB.

Pour toute question sur Natura 2000 et les outils contractuels proposés, vous pouvez joindre les services de la Communauté d'Agglomération Pays Basque : 05 59 48 30 85 / m.cherbero@communaute-paysbasque.fr



BAZTAN

